

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

MUNGIAKO UDALAREN PLAN
ESTRATEGIKOA

2018-2022

ESEP-MUNGIAKO 2. PLAN ESTRATEGIKOA (2018-2022)

Dokumentu hau irakurri aurretik, eta aurkezten den plan estrategiko hau hobeto ulertze aldera, zera gogorarazi beharra dago, Plan Estrategikoak helburu nagusiak eta azpi-helburuak ezartzen dituela, baina eurok lortzeko egingo diren ekintzak urteroko Kudeaketa Planetan zehazten direla. Beraz, estrategiko honetan ez da ekimen edo jarduera zehatzik agertzen.

Gainera, kontuan hartu behar da, urteroko euskara planak (kudeaketa planak) elementu biziak direla eta plan estrategiko bati lotuta dauden arren, bien bitartean sortzen diren beharizanen eta aukeren arabera moldatzen direla.

Aurrekariak

Plan estrategiko hau ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) programaren 2. Plan Estrategikoa da, lehenengoa 2015-17koa izan zen. Horren aurretik, 2003an abiatutako EBPN programaren barruan hiru estrategiko eta hamabi ekintza plan garatu dira. Beraz, 2018eko Ekintza Plana hamaseigarrena izango da.

Plan estrategiko honen ekarpena

Plan Estrategiko hau une berezian dator, hobeto esanda, erabakigarrian. Udalak eta Euskal Herri osoak urte asko daramatzate bete-betean sartuta euskararen erabileraren normalkuntza bultzatzen. Urteotan jorrotutako lan horrek eta ezarritako oinarri sendoek batetik, eta oraindik ere euskararen erabileran ikusten dugun aurrera egin ezinak bestetik, erakusten digute jauzi kuantitatibo bat egiteko unea heldu zaigula. Ezagupenetik erabilerarako jauzia hain zuzen ere.

Beraz, indarririk gehien erabilera-esparruetan egin behar dela jakinda, eta 2017ko udagoieneko Euskara Foroetan esandakoari jarraituta, hauexek izango dira datozen urteotarako erronka nagusiak:

- 1.- Aisialdi eskaintza era integralean euskalduntzea (Udalarenaz gain, elkarteena, ostalaritzarena, zerbitzu pribatuena, librea).
- 2.- Euskara prestigiatzea; dendetan, enpresetan eta kalean komunikaziorako ohiko hizkuntza bihurtuta.
- 3.- Hizkuntz kontzientzia handitzea.

Eta horretarako ezinbestekoa da estrategia batzuk lantzea:

- Sareak sortu lehentasunezko eremuetan lan egiteko eta eragiteko.
- Komunikazioa eta harremanak elikatu euskaraz sortu eta eskaintzen dena ikusgarri eta erakargarri egiteko.
- Hizkuntza irizpideak eta kontzientzia iraunkorki landu elkarteekin.
- Hizkuntza kontzientzia handitu hizkuntza praktika berriak sortuta.

Jarritako helburu eta estrategia horiek erakusten digutenez, kalea eta jendartea izango da datozen urteetarako joko-zelaia. Horretan, beraz, herritarren eta herri-elkarte eta ekimenen parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoa izango da. Izan ere, herria euskalduntzea erronka kolektiboa da.


Plan estrategiko hau, baina, ez da ezerezetik abiatzen. Urteotan lan handia egin da hiru arlo estrategikoetan (transmisioan, erabileran eta elikaduran) eta datozen urteetan bigarrenen indar gehiago jarriko dan arren, ez dugu ahaztu behar estu-estu lotuta daudela hirurak eta elkarren beharizana dutela indartu gura izanez gero.

Hori gogoan dela, plan estrategiko honek erabileran eta kontzientziazioan egingo duen lanaz gain, ez ditu bazterrean utziko transmisioa eta elikadura. Arlo horietan eutsi egingo zaio urteotan jorratutako bideari eta azpi-arlo batzuk indartu egingo dira.

Egitura

ESEPe hiru helburu estrategiko ezartzen ditu (Jabekuntza, erabilera eta elikadura), helburuotako bakoitzean hainbat esparru eta esparruetan neurriak. Eta goian esan bezala, neurriak kudeaketa planetan zehazten dira.

Adibidez



JABEKUNTZA

1. Familia transmisioa

1.1.- Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.

1.3.- Familia barruan euskararen erabilera sustatzea.

Helburu nagusia: gurasoen hizkuntza-ohituretan eragitea (euskara prestigiatzea).

2. Irakaskuntza

2.4.- Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea.

2.5.- Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea.

2.6.- Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.

Helburu nagusiak:

- Ikastetxe “oso” eremu euskaldun bihurtzea (eskola orduz kanpoko ekintzak, jantokia, patioa, gurasoen elkartearen jarduna...).
- Ikastetxeen eta herrian egiten diren ekimenen arteko zubiak eraikitzea.

3. Euskalduntzea eta alfabetatzea

3.4.- Elebitasun pasiboa helduen munduan? Eta gutxieneko helburutzat? Areagotzea eta prestigiatzea.

3.8.- Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak.

3.9.- Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.

Helburu nagusiak:

- Euskalduntzen dabilzan horiek euskaldun aktibo bihurtzea.
- Euskara ikasleak integratzeko arnaguneak indartzea eta sortzea.

ERABILERA

6. Arlo sozio-ekonomikoa

6.4.- Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea.

6.8.- Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea.

Helburu nagusiak:

- Merkataritzan egindako lanari eustea eta ostalaritzan sartzea.
- Enpresa arloa hobeto ezagutzea eta eskaintza txiki bat prestatzea.
- Merkatarien arteko eta enpresen arteko sareak osatzea.

7. Aisia eta kirola

7.1.- Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.

7.2.- Begiraleen prestakuntza sendotzea.

7.3.- Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea.

7.4.- Euskararen erabilera bultzatuko duten ekimenak antolatu eta baliabideak optimizatzea.

7.5.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, euskarak aisialdian izan dezakeen garapenari bultzada emateko.

7.6.- Gazteei zuzendutako modako ekimen guztietan euskara lehenestea.

7.7.- Etorकिन integrazio zabala eta aberasgarria ahalbideratzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea.

7.8.- Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea.

7.10.- Euskara kirol-munduan erabiltzeari prestigioa ematea.

Helburu nagusiak:

- Aisialdi eskaintza era integralean euskalduntzea. Arreta berezia jarrita elkarleen eta taldeen (txokoak, kaleko aisialdi librea, zerbitzu pribatuena) jardunean. (Ostalaritza ere bai).
- Informazioa zabaltzeko sistemai etekin hobea ateratzea.
- Gaztetxoei (9-15) eta gazteei zuzendutako eskaintza erakargarria lantzea, eurentzat eta eurekin.
- Euskara prestigiatzea eta beharrezko bihurtzea, batez ere, kirol arloan.

ELIKADURA

8. Liburugintza

8.1.- Irakurzaletasuna bultzatzea.

9. Kulturgintza

9.1.- Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.

9.2.- Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea.

9.3.- Euskarazko ekoizpenen zirkuituak antolatzea.

9.4.- Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea.

Helburu nagusiak:

- Euskarazko produktuen kontsumoa (kontzertuak, antzezlanak...) handitzea, komunikazioa hobetuta.
- Euskarazko produktuen kontsumitzaileen taldea trinkotzea, hau da, publiko fijo bat izatea eta apurka-apurka handitzen joatea (adin guztietakoa). Kontsumo hori arnagune bihurtzea.

10. Publizitatea

10.2.- Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea.

10.3.- Euskarazko publizitatearen merkatua prestigiatzea iragarleen artean.

11. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

11.2.- Esparruko eragile nagusien elkarlana areagotzea, horretarako lankidetzak bideak jorratuz.

11.3.- EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea.

11.5.- Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea.

11.6.- Euskararen kalitatea zaintzea.

Helburu nagusiak:

- Herritarrek euskalkia baloratzea eta euskalkiak dituen baliabideak aprobetxatzea.

- Gazteek hizkuntzaren adierazkortasuna ez galtzea.
- Kalitatea zaintzea udalaren hedabideetan eta udalaren laguntza duten hedabideetan.

12. Hedabideak

12.3.- Hedabide publikoen hizkuntzarekiko betekizunei buruzko hausnarketa bideratzea.

12.7.- Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea.

Helburu nagusiak:

- Herriko hedabideek herritarrek dituzten beharrianak asetzea.
- Hedabide horien hizkuntzaren kalitatea bermatzea.

13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

13.3.- Euskarazko tresnak sortu eta sustatzea.

Helburu nagusiak:

- Teknologia berriei ahalik eta etekin handiena ateratzea herritarrekin komunikatzeko.
- Tresna berri erakargarriak sortzea, gazteentzat kasurako.

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.1.- Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.

14.2.- Familia transmisioa.

14.3.- Irakaskuntza.

14.4.- Euskalduntze-alfabetatzea.

14.5.- Administrazioa.

14.6.- Arlo sozioekonomikoa.

14.7.- Aisia eta kirola.

14.8.- Liburugintza.

14.9.- Kulturgintza.

14.10.- Hedabideak eta publizitatea.

14.11.- Teknologia berriak.

Helburu nagusia: Herritarrak euren eguneroko arlo guztietan euskaraz bizitzen animatzea, mezu positiboak zabalduta eta tresnak eskainita.

15. Barruko proiektzioa

15.1.- Euskararen irudi positiboa indartzea.

15.2.- Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan.

15.3- Erakundeen arteko elkarlanean aritzea euskararen barruko proiektzioa bultzatzeko.

15.5.- Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea.

15.6.- Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigiatzea.

Helburu nagusia: Euskara prestigiatzea, hizkuntza modernoa eta, aldi berean, nortasunez jantzia dela erakutsita, eta balio erantsia ematen duela azalduta. Herri kohesiorako tresna modura erabiltzea.

16. Kanpoko proiektzioa

16.7.- Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea.

Helburu nagusia: Mungiak (Udalak, kultur eta kirol elkarteek, agintariek, herritarrek...) bere burua herri euskalduntzat aurkeztea kanpora begira.